

Haritz Granadara joan da

–Hariiiiitz! Azkenean, zer zaila den zurekin hitz egitea! Zergatik ez didazu telefonoa hartzen? Kezkatuta nabil!

–Ai, Leire! Barkatu; ez dizut erantzun oso lanpetuta nabilelako.

–Lana topatu duzu, ala?

–Bai. Taberna batean aritzen naiz asteburuetan.

–Eta zergatik ez didazu mezu bat idatzi kontatzeko?

–Ai neska, ba, pasa egin zaidalako! Asteburu osoa ematen dut lanean, astean zehar unibertsitatera, etxeko lanak...

–Asteburuero egiten duzu lan? Zer gogorra!

–Bai. Goizeko zortzietan sartzen naiz, eta gaueko hamarretan ateratzen naiz.

–Hori astakeria bat da!

–Bai, gainera, etxetik urruti dago, eta autobusez joan behar dut. Seietan jaiki behar dut eta gaueko hamabiak arte ez naiz etxera iristen. Oso nekatuta nabil!

–Baina zuk badaukazu autoa; zergatik ez zara autoz joaten?

–Tabernaren inguruan ez dagoelako aparkatzeko tokirik!

–Kasualitatea! Eta zer lan egiten duzu tabernan, terrazan aritzen zara?

–Ez, denetarik egiten dut. Iristen naizenean, taberna garbitzen dut.

–Zer ordutan irekitzen duzue?

–Bederatzietan. Bederatzi eta erdietan hasten naiz gosariak prestatzen, eta, gero, hamaiketan, pintxoak prestatzen ditut.

–Ui, zuk badakizu pintxoak egiten?

–Pintxo errazak bai: hegaluzea maionesarekin, patata-tortilla, ogitarteko txikiak... Jendeak oso gustura jaten ditu!

–Probatu beharko ditugu, ba!

–Nahi duzunean!

–Eta egun osoan egoten zara sukaldean?

–Ez. Hiru eta erdietan ixten dugu sukaldea, eta, dena jaso ondoren, zerbait bazkaltzen dut eta barran aritzen naiz, hamarrak arte.

–Normala denborarik gabe ibiltzea, motel! Segi deskantsatzera lasai. Hitz egingo dugu!

–Bai. Musu handi bat. Agur!